



JASANGARRITASUNA **ETA** **GARAPEN** **JASANGARRIAREN** **HELBURUAK**

GIDA METODOLOGIKOA





AURKIBIDEA

SARRERA	03
OINARRI KONTZEPTUALAK	04
Jasangarritasunaren ikuspegia edo jasangarritasunaren kolorea	04
Jasangarritasunaren ardatzak	06
Ekofeminismoa eta zaintzen logika	08
Permakultura: Ikuspegi sistemikoa	10
EDUKIAK ETA APLIKAZIOAK	12
Naturaren garrantzia	14
Kapitalismoaren muga	18
Elikadura burujabetza	22
Ekonomia zirkularra	26
Erresilientzia komunitarioa	30
Garapen Jasangarrirako Helburuak	34
Kntsumo jasangarria	38
Greenwashing-a	42
ONDORIOAK	46

SARRERA

Gida hau Labore Txingudi elkarteak, Ara!Gorputz kooperatibak eta Maïa Permaculture kooperatibak, guztiak Bidasoako ekonomia sozial eta eraldatzailearen BDSkoop elkarteko kideok aurkezten dugu:

Azken urteetan Bidasoan garatu ditugun *esperientzia pedagogikoen jarraipena eta sakontzea da*, hala nola, “Garapen Jasangarrirako Helburuen lanketa eskoletan” eta “Bidasoako ekimen ekofeministak” proiektuak zein eskualdeko hezkuntza komunitatearekin landutako bestelako saio eta ekimenen ondorio.

Esperientzia horiek jasangarritasunaren lanketarekiko interesa gero eta handiagoa dela erakutsi digute, baina askotan irakasle eta hezitzaileek ez dutela behar adina tresna praktiko edota dokumentazio eskuragarri. Horregatik, **gida hau** behar horri erantzuteko sortu dugu: **baliabide irisgarri, ulergarri eta aplikagarri bat eskaintzeko.**

Testuinguru zabalagoan, jasangarritasunaren erronkak ezin dira soilik ingurumen ikuspegitik landu. *Ekofeminismoak zaintzen logika eta bizitzaren sostengua erdigunean jartzen laguntzen digu, eta Permakulturak ikuspegi sistemiko bat eskaintzen du*, naturaren ereduekin eta praktika eraldatzaileekin lotuz. Agenda 2030ak marko globala eskaintzen du, baina gida honen **helburua marko hori gure ikastetxe, elkarte eta komunitate hurbilera ekartzea da, tokiko praktiketan eta eguneroko errealitatean errotuta.**

Gida hau irakasle eta hezitzaileei zuzendu zaie, baina baita gurasoei, gazteei eta hezkuntza ez-formaleko eragileei ere. **Autoformakuntzarako, hausnarketarako eta jarduera kolektiboak diseinatzeko tresna izango da.** Ez du perfekzioa bilatzen, baizik eta ekintza txikien bidez eraldaketa sozial eta ekologikoa bultzatzen laguntzea. Guztiok daukagu ekarpen txiki bat egiteko aukera, eta gida honek horretarako bidea erraztu nahi du.



JASANGARRITA IKUSPEGIA EDO JASANGARRITA

Jasangarritasuna azken urteetan etengabe entzuten dugun kontzeptua da, baina askotan irudi abstraktu edo lausoa sortzen du gure buruan. Horregatik, gida hau lantzen hasi aurretik, komeni da hitzari forma eta kolorea ematea. Galde diezaiokegu gure buruari: zer koloretakoa da jasangarritasuna?

Gehienetan jasangarritasuna berdearekin lotzen dugu, naturaren eta ingurumenaren sinbolo nagusia delako. Kolore horrek biziaren sostengu materiala gogorarazten digu: zuhaitzak, landareak, ura eta aire garbia. Baina jasangarritasuna ez da natura zaintzera mugatzen, arlo guztietan lantzen den prozesua da: gizartea, ekonomia, kultura, zaintza eta komunitatearen antolaketa. Horregatik, jasangarritasunak ez luke kolore bakarra izan behar; kolore guztiak behar ditu.

Pentsa ezazu jasangarritasuna kolore-paleta oso baten gisara. Gorria zaintzen eta maitasunaren indarra irudikatzeko; urdina, uraren eta elkartasunaren sinboloa izateko; horia, energia eta sormenaren ikurra; beltza edo grisak, erronkak eta muga estrukturalak gogorarazteko. Kolore guzti horiek batera ulertuta jasangarritasuna ez da ikuspegi murritza, baizik eta **aniztasunean eta osotasunean kokatzen den kontzeptua.**

Definizio klasikoak jasangarritasuna “gaurko beharrak asetzea etorkizuneko belaunaldien aukerak arriskuan jarri gabe” dela dio. Definizio horrek argitasuna ematen duen arren, beharrak eta aukerak bezalako hitzen zentzu zabalak zein kapitalismoak naturari ematen dion baliabideen erabileraren zentzu estraktibistagatik, jasangarritasuna ingurumenarekin soilik lotu izan da, gizarte eta ekonomia dimentsioak bigarren planoan utzita. Hala ere, ikuspegi integrala behar dugu: ingurumenaren zaintza ezin da gizartearen kohesiorik gabe ulertu, eta ekonomia ezin da soilik etekin pribatuan oinarritu.

Ikuspegi horretatik, jasangarritasuna ez da kontu tekniko edo neutroa, baizik eta **gizakion erabakiek eta ohiturek munduan duten eragina aztertzeke modu bat.** Indibiduen ardura ez da talde edo erakunde handien mailakoa. Hortaz, ez da gutako bakoitzak perfekzioa lortzearen kontua, ez eta hainbatek egiten ez dutenarekiko oreka eragitea; *egunerokoan pauso txikiak ematearena baizik, ohitura eta jarrera erresilienteagoak garatzea, pauso horiek balio handia baitute norabide kolektiboan.* 15 kilometro oinez egiteak ere badu garrantzia, nahiz eta 100 kilometroko bidea egiteko oraindik asko falta. Hori dela eta, gidak proposatzen dituen ekintzak ez dira irtenbide perfektuak, baizik eta bidean koherentziaz jarduteko edota bide berriak irekitzeko gonbite txikiak.

SUNAREN

SUNAREN KOLOREA

JASANGARRITASUNAREN ARDATZAK


Jasangarritasuna **hiru ardatzetan** edo zutabetan oinarriturik dago: **ingurumenaren zaintza, gizartearen kohesioa eta bidezko ekonomia**. Hiru dimentsio horiek tripode baten hanka moduan uler ditzakegu: bat falta bada, oreka galdu egiten da eta sistema ez da sendoa izango.

Jasangarritasuna ulertzeko, ezin da ardatz hauetako bakoitza isolaturik ulertu: elkarrekin lotzen direnean sortzen da jasangarritasunaren benetako zentzua. Permakulturaren ikuspegiak orekan mantentzeko orientazioa ematen duten hiru etika planteatzen ditu, jasangarritasunaren hiru ardatzekin bat egiten dutenak. Gida honetan lantzen diren ekintzak eta proposamenak dimentsio horietako bakoitza kontuan hartzen saiatzen dira, baina batez ere haien arteko elkarlotura azpimarratzen dute.



INGURUMENA

GIZARTEA



EKONOMIA

INGURUMENA - Bizitzaren sostengua

Ingurumenak **bizitzeko baldintza objektiboak** eskaintzen dizkigu: aire garbia, ura, lur emankorra, biodibertsitatea... Ez dira baliabide hutsak, gure etxea baizik. **Naturekiko interdependenteak gara**, gu geu naturaren parte gara, gu geu natura gara. Horregatik, jasangarritasuna ezin da ulertu naturarekiko harreman justurik gabe.

GIZARTEA - Pertsonak eta Komunitatea

Jasangarritasuna ez da soilik norbanakoen ongizatea bermatzea, **komunitate sendo eta bidezkoak eraikitzea** ere bada. Haurreskoletan sortzen diren harreman sare txikietatik hasita, auzo edo herri oso baten kohesioraino, **zaintza, interdependentsia eta berdintasuna** dira gizarte jasangarri baten giltzak.

EKONOMIA - Baliabideen erabilera justua

Ekonomia ez da soilik irabazi pribatuetarako tresna, **bizitzari eusteko egitura** baizik. Tokiko ekonomiak indartzea, bidezko trukeak bultzatzea eta baliabideak modu arduratsuan kudeatzea beharrezkoa da. Ekonomia jasangarria da baliabideak **bidezko banaketa** baten arabera antolatzen baditu eta hein berean **zaintza-lanak** balioesten baditu.

EKOFEMINISMOA: ZAITZEN LOGIKA

Ekofeminismoak argi erakusten digu gure gizartearen oinarri nagusiak berriro pentsatzeko beharra dagoela. Mendebaldeko sistemak natura eta pertsonen zaintza bigarren mailan utzi izan ditu, eta horren ondorioz ingurumen-krisia, desoreka sozialak eta zaintza-lanen gainkarga eragin ditu. Ekofeminismoak, ordea, ikuspegi alternatiboa eskaintzen du: **bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren elementuak** —ura, elikadura, energia, harremanak, zaintza emozionala eta fisikoa— **erdigunean jartzea**.

Zaintza eremu pribatuarekin zein generoarekin lotzen duen proposamen konbentzionala gainditzen du. Zaintzak ez dira soilik familia barruko kontua, zaintzak ez dira soilik emakumeen ardura. **Zaintzak komunitate osoaren erantzukizuna dira**, eta ikuspegi horretatik jasangarritasunaren gako nagusietako bat bilakatzen dira. Ez dago ingurumenaren zaintzarik pertsonen ongizaterik gabe, eta ez dago ongizaterik zaintzen antolaketa bidezkorik gabe.

Hezkuntza eremuan, ekofeminismoak **haur eta gazteekin zaintzekiko ardura modu bidezkoan nola banatu behar dugun lantzeko aukera ematen digu**; nola ikusi eta sentitu natura baliabide hutsetik harago, bizitzaren sostengu gisa ulertuz; eta nola garatu harreman errespetuzko eta zaintzaileak gure ikastetxe eta komunitateetan. Ikuspegi honek kritika eta eraikuntza uztartzen ditu: egungo sistemaren mugak bistaratzen ditu, baina aldi berean alternatibak eskaintzen ditu, eguneroko praktika txikietan oinarrituta.

Ekofeminismoa jasangarritasunaren paletan beste kolore bizi bat da: bizitza erdigunean jartzeko eta zaintzak aitortzeko deia. Bere indarra hezkuntzan ere aplikatzen da, baloreetan, harremanetan eta eguneroko ekintzetan. Gida honen bidez, ikuspuntu hori lantzeko tresna praktikoak eskainiko ditugu.





PERMAKULTURA: IKUSPEGI SISTEMIKOA

Jasangarritasunaren hiru ardatzak —ingurumena, gizartea eta ekonomia— eta zaintzen ikuspegi ekofeminista elkarren osagarri dira: elkarri eusten diote eta bata gabe bestea ez da posible. **Permakulturak**, naturan dauden harreman eta zikloetan inspiratuta, oreka hori mantentzeko **ikuspegi sistemikoa eskaintzen du**.

Permakultura ez da soilik baratzeen diseinuari buruzko teknika; filosofia praktiko bat da, bizitza-sistemak modu integralean diseinatzeko. Bere oinarrian **hiru etika** daude, eta hauek zuzenean lotzen dira jasangarritasunaren ardatzekin:

LURRA ZAINDU

Ingurumen ardatzaren isla, bizitzaren oinarriak babesteko konpromisoa.

PERTSONAK ZAINDU

Gizarte ardatzarekin bat dator, komunitatearen ongizatea eta zaintza erdigunean jarritz.

BALIABIDEEN BIDEZKO BANAKETA

Ekonomiaren ardatzari erantzuten dio, bidezko eta jasangarriak diren trukeak sustatuz.



Etika hauek ez dira teoria abstraktuak, eguneroko jardunerako gidari praktikoak baizik. Hezkuntzan aplikatuta, ikasle bakoitza, bere ekarpenarekin eta bere erantzukizunarekin, ekosistemaren parte dela esan nahi du. Ikasgelak, komunitateak eta proiektuak ekosistema bizidun gisa ulertzen direnean, ikaskuntza sakonagoa eta parte-hartzaileagoa bihurtzen da.

Azken finean, permakulturak erakusten digu **bizitza jasangarria ez dela emaitza bat, prozesu bizia baizik: oreka bilatzen duen mugimendua, non lurra, pertsonak eta baliabideak elkar zaintzen duten.**

Horregatik, gida honetan permakulturaren ikuspegiak orientazio garrantzitsua ematen du: naturan bezala, hezkuntza eta komunitateak ere eredu bizidun eta integratu gisa ulertu ditzakegu, non ekintza txikiek ere osotasunean eragin handia izan dezaketen.





EDUKIAK ETA APLIKAZIOAK

GIDAREN ERABILERA PRAKTIKORAKO GOMENDIOAK

Gida hau hezkuntza komunitatearentzat bidelagun izan nahi du, jasangarritasuna modu erraz eta hurbilean lantzeko. Hemen aurkituko dituzun ariketek eta proposamenek aukera emango dizute hausnarketa pizteko, eztabaidak irekitzeko eta ikasleekin edo taldeekin ekintza txiki zein handiagoak abian jartzeko.

Edukiak malguak dira, testuinguru bakoitzera egokitzeko pentsatuak: ariketa batzuk ikasgelan erabil daitezke modu laburrean, beste batzuk, berriz, saio oso baten ardatz bihur daitezke. Material osagarrien bidez, nahi duenak sakondu dezake, baina gida hau bera nahikoa da abiapuntu gisa.

Helburua ez da jarduera guztiak egitea, baizik eta bakoitzak bere errealitatean egokienak diren aukerak hautatzea. Garrantzitsuena da ikasleekin esperimentatzea, pauso txikiak ematea eta jasangarritasunaren inguruko kontzientzia kolektiboa pixkanaka eraikitzea. Gida honek bide horretan lagundu nahi du, inspirazio eta motibazio iturri gisa.

GIDAREN IKONOGRAFIA

Atal honetan, ikonoak erabiliko ditugu jarduera bakoitzaren informazioa eta baliabide mota ezberdinak modu azkarrean identifikatzeko. Jarraian, erabilitako ikonoen azalpena aurkituko duzu:



Iraupena



Talde mota



Materiala



Bideoa



Dokumentua (testua, infografia, gida)



Dinamika edo saio didaktikoa





NATURAREN GARRANTZIA

Natura ez da gure inguruan dagoen **dekorazio bat**, ezta baliabideen biltegi huts bat ere: **gu geu naturaren parte gara**. Gure arnasa, gure elikadura eta gure ongizatea ekosistemen orekan oinarritzen dira. Horregatik, **jasangarritasunaz** hitz egitea ez da “natura zaintzea” soilik, baizik eta **gure burua zaintzea ere bada**.

Haurrei eta gazteei naturaren garrantzia ulertarazteko gakoa da lotura afektiboa sortzea: ingurunean jolastea, landare eta animaliekin harremanak izatea, denboraldi eta ziklo naturalak ezagutzea. **Naturan bizi dugun esperientzia zuzena da gure kontzientzia ekologikoaren sustraia**.

Horrez gain, naturak irakaspen handiak eskaintzen dizkigu. Ekosistemetan ez dago soberakinik, denak du bere lekua; espezieen arteko elkarlana da biziraupenerako giltza; zikloek erakusten digute denboraren erritmoa ezin dela azeleratu. Printzipio horiek hezkuntzan txertatzeak ikuspegi sistemikoa eta errespetuzkoa sustatzen du, bai ikasleen artean, bai komunitatean.

Natura gara esateak gogorarazten digu gure ekintzek eragin zuzena dutela ingurunean eta alderantziz. Horregatik, gure ikasleekin eta taldeekin lantzen ditugun ariketa txikiek balio handia dute: ohitura jasangarriak hartzea, gure ingurunea zaintzea eta bizitza sare handi horren parte garela sentiaraztea.



HELBURUA

Ikasle edo parte-hartzaile bakoitzak jasangarritasunari buruzko bere iruditeria pertsonala azaleratzea, koloreen bidez.

ARIKETA 1

Jasangarritasunaren kolorea

15-20 min.



Talde osoa



Kolore-txartelak edo kartulina zatiak / margoak.



ARIKETAREN GARAPENA

Dinamizatzailleak galdetzen du: *"Zer koloretakoa da zuretzat jasangarritasuna?"*.

Parte-hartzaile bakoitzak kolore bat aukeratzen du eta azalpen laburra ematen du.

Erantzun gehienak berdeak badira, dinamizatzailleak jasangarritasunaren definizioa irakurriko du: *"Jasangarritasuna, gaurko beharrak asetzea etorkizuneko belaunaldien aukerak arriskuan jarri gabe da."*

Honekin hausnarketa berria bideratzen da. Kolore paleta zabaldu daiteke?

"Pentsa ezazu jasangarritasuna kolore-paleta oso baten gisara. Gorria zaintzen eta maitasunaren indarra irudikatzeko; urdina, uraren eta elkartasunaren sinboloa izateko; horia, energia eta sormenaren ikurra; beltza edo grisak, erronkak eta muga estrukturalak gogorarazteko. Kolore guzti horiek batera ulertuta jasangarritasuna ez da ikuspegi murrizta, baizik eta aniztasunean eta osotasunean kokatzen den kontzeptua."

Guztien koloreekin mural kolektibo bat osatzen da: *"Jasangarritasunaren paleta"*.

HAUSNARKETA GALDERAK

0 Zergatik aukeratu duzu kolore hori?

0 Zer irudikatu nahi zenuen kolore horrekin?

0 Zer erakusten digu taldeko paleta anitzak jasangarritasunari buruz?



ARIKETA 2

Natura nire inguruan



20-30 min.



Talde osoa



Ez da beharrezkoa, baina paseoa egin daiteke eskolako patioan edo inguruan.

HELBURUA



Ikasleek konturatzea gu geu naturaren parte garela, gure eguneroko bizitzan naturaren arrastoak aurkituz.

ARIKETAREN GARAPENA

- Taldea ateratzen da eta parte-hartzaile bakoitzak 3 elementu natural bilatzen ditu (hosto bat, harria, lurra, intsektu bat ikustea...).
- Dinamizatzaileak hausnarketarako galdera hauek egingo ditu:
 - Noiz aukeratu edo erabili duzu elementu horietako bakoitza zure bizitzan lehenago? Zertarako?
 - Bilatu elementu bakoitzaren ezaugarri bat norberarekin konpartitzen dena (adib.: elikatzeko beharra du, handitzen da, kaka egiten du...).
- Elementuen aurkezpena: ikasleek hausnarketari erantzuten diote harremana eta ezaugarria azalduz.
- Dinamizatzaileak lotura egiten du: "Natura ez dago gure kanpoan soilik; gu geu ere natura gara". *

*(Proposamena: Thich Nhat Hanh-en Inter-lzatea kontuan izan)



HAUSNARKETA GALDERAK

- 0 Zergatik aukeratu duzu kolore hori?
- 0 Zer irudikatu nahi zenuen kolore horrekin?
- 0 Zer erakusten digu taldeko paleta anitzak jasangarritasunari buruz?

BALIABIDE OSAGARRIAK

Thich Nhat Hanh-en Inter-Izatea

Si fuéramos como los gansos...



EKINTZA POSIBLEAK

Eskolako txoko berdea sortzea

Haurrek landareak landatu eta zaintzeko gune txiki bat, "gure ekosistema txikia" gisa.

"Natura gara" egunerokoa

Ikasle bakoitzak aste batean zehar naturarekin izan duen harreman txiki bat idaztea (janaria, paseo bat, animaliak ikustea...).

Naturaren zaintza-konpromisoak

Taldean hitzartutako 3 ekintza txiki (ura ez alferrik galtzea, papera aurrezteak, jolastokiko natura errespetatzea).

Komunitate ekintza

Auzoko parke edo baso batean egun bateko "zaintza jardunaldia" (hondakinak jasotzea, landareak ezagutzea, bertako espezieei buruzko jolasak egitea).





KAPITALISMOAREN MUGA

Gaur egungo sistema ekonomiko nagusia kapitalismoa da, eta gure eguneroko bizitzako ohitura eta erabakietan eragin zuzena dauka. **Sistema honek hazkunde ekonomikoa helburu nagusitzat hartzen du**, eta horrek **baliabide naturalen etengabeko ustiapena justifikatzen du** merkatuaren logikaren izenean. Baina **natura ez da infinitua**: baliabideak agortzen dira eta ekosistemek berreskuratzeko denbora behar dute.

Kapitalismoak pertsonengan ere ondorio sakonak ditu. Lan-prekarietatea, kontsumismoaren presioa, zaintza-lanen ez aitortza eta desberdintasun sozial gero eta handiagoak ez dira kasualitateak, baizik eta sistemaren egiturazko ezaugarriak. Horrek guztiak gure komunitateen kohesioa ahultzen du eta **jasangarritasunaren oinarriak kolokan jartzen ditu.**

Gainera, **kapitalismoak kontsumo eredua bultzatzen du**, non produktuak “diseinuz zaharkituta” sortzen diren, gehiago erostera behartuz eta hondakin kopuru handiak sortuz. Hori guztia naturaren eta gizartearen kontura egiten da.

Horregatik, **jasangarritasunaz hitz egiten dugunean ezinbestekoa da kapitalismoaren mugak aztertzea.** Sistemaren logikak zalantzan jarri behar ditugu, eta bestelako alternatibak imajinatu: tokiko ekonomia bidezkoak, elkartasunean oinarritutako harremanak, zaintza-lanak erdigunean jartzen dituzten ereduak. Gida honetan landuko ditugun gaietako asko norabide horretan kokatzen dira, trantsizio ekosozial baten aldeko bidea indartuz.



HELBURUA

Ikasleek ulertzea produktu batek zein ibilbide egiten duen gure eskuetara iritsi arte, eta horrek zer ondorio dituen.

ARIKETA 1

Kontsumoaren bidaia

20 min.



Talde txikiak



Marrazteko paperak edo diapositiba sinple bat.



ARIKETAREN GARAPENA

- Parte-hartzaileei esaten zaie pentsatzeko produktu arrunt batean (adib. jogurt bat, kamiseta bat, telefono mugikorra).
- Taldean "bizitza-katea" marrazten dute: nola sortzen da, nork egiten du, nola garraiatzen da, non saltzen da, eta nola amaitzen da.
- Aztertzen dute zein puntuetan dagoen ustiapena (lan-baldintzak, naturaren erabilera, hondakinak...).

HAUSNARKETA GALDERAK

- 0 Zein puntutan dago arazo nagusia?
- 0 Zer alternatiba imajina ditzakegu kate horretan?



ARIKETA 2

Beste mundu bat posible da



15-20 min.



Talde txikiak



Irudi edo objektu batzuk (adib. txokolatea, telefonoa, botila plastikoa, jostailu bat, arropa...) eta kartulina.



HELBURUA

Ohartzea gure eguneroko objektu eta ohituretan sistema ekonomikoaren logika dagoela, eta alternatiba txikiak irudikatzea.

ARIKETAREN GARAPENA

- Dinamizatzailleak 3-4 objektu erakusten ditu eta galdetzen du: *"Nork egin du hau? Nondik dator? Nork irabazten du eta nork galtzen?"*
- Talde txikiek objektu bat aukeratzen dute eta "alternatiba bidezkoago" bat irudikatzen dute (marrazki batean edo hitzez).
Adib.: txokolatea → bidezko merkataritzakoa, telefonoa → konpondu eta berrerabili, jostailua → truke bidez lortu...
- Guztiak mural batean jartzen dira izenburuarekin: *"Beste mundu bat posible da"*.



HAUSNARKETA GALDERAK

- Zer aldaketa txiki egingo zenuke zuk produktu horretan?
- Nola lagun dezakegu bidezkoagoa izaten gure erabaki txikiekin?

BALIABIDE OSAGARRIAK

The Story of Stuff



Decrecimiento



¿Podemos CRECER sin límites?



¿El desarrollo sostenible es mentira? Las
propuestas del decrecimiento



EKINTZA POSIBLEAK

Egun bateko kontsumoaren mapa

Parte-hartzaile bakoitzak apuntatzen du egun batean erosten edo erabiltzen duen guztia eta nondik datorren.

Erosketa alternatiboa

Klasean edo taldean "saskia" prestatzea, tokiko eta bidezko produktuekin.

Zirkulua ixtea

Produktu baten hondakinari bigarren bizitza emateko tailer txikia (adib. beirazko poteak, arropa zaharra, papera).

Komunitatean

Tokiko denda edo kooperatiba batera bisita gidatua, alternatiba errealak ezagutzeko.





ELIKADURA BURUJABETZA

Elikadura burujabetza **komunitateek beren elikadura-sistemak kontrolatzeko duten eskubidea da**: zer, nola eta norekin ekoitzi eta kontsumitu erabakitzeko gaitasuna. Ez da soilik elikagaien hornidurari buruzko kontua, baizik eta **erabaki politiko eta sozial garrantzitsua**.

Munduan indarrean dagoen **nekazaritza eredu industrialak ekoizpena globalizatu eta merkatu handien interesetara lotu du**. Horrek ingurumenari kalte egiten dio — monolaborantzek, pestiziden erabilerak eta garraio luzeek—, eta nekazarien eta kontsumitzaileen autonomia ahultzen du. Kontrara, **elikadura burujabetzak tokiko eta agroekologikoak diren ereduaren alde egiten du**: sasoiko produktuak, hurbileko hornitzaileak, baratze komunitarioak eta bidezko merkataritza.

Elikadura burujabetza, gainera, **jasangarritasunaren hiru ardatzak uztartzen ditu**: ingurumenari dagokionez, naturaren zikloak errespetatzen ditu; gizarteari dagokionez, komunitateak kohesionatzen eta elkar zaintzen laguntzen du; eta ekonomiari dagokionez, tokiko ekoizpenak eta bidezko trukeak sustatzen ditu.

Ikuspegi hau haur eta gazteekin lantzeak aukera ematen du jakinarazteko gure erabakiek —zein janari aukeratzen dugun, nondik datorren, nola ekoiztu den— eragin zuzena dutela mundu mailako sistema ekonomiko eta ekologikoetan. Gida honetan elikadura burujabetza lantzeko proposamenek balio izango dute ikasleek kontzientzia hartzeko eta beren ingurunean ekarpen txiki baina esanguratsuak egiteko.



HELBURUA

Ikasleek jakitea
janariak duen jatorria
eta egiten duen
bidaia.

ARIKETA 1

Nondik dator nire otordua?

20-25 min.



Talde osoa / Bakarka



Elikagaien irudiak (fruta tropikalak,
barazki tokikoak, erregai asko behar
duten produktuak).



ARIKETAREN GARAPENA

- Taldean hainbat elikagai aurkezten dira, denak kanpokoak eta inpaktu handia dutenak. Adib.: kainera azukrea, piña, patata poltsa bat, txokolatea, kakahueteak...
- Ikasleek asmatzen dute nondik datorren eta zenbat kilometro egin dituen.
- Azalpen txiki bat egiten da: zein da tokikoa, zein ez, zein den sasoikoa, zein den komunitate bidezko sare batetik datorrena.

HAUSNARKETA GALDERAK

- 0 Zerk egiten du janari bat jasangarriagoa?
- 0 Gure aukerak nola lagundu dezakete tokiko komunitateei?



ARIKETA 2

Menu burujabea



30 min.



Talde txikiak



Paperak, margoak, elikagaien fitxak.



HELBURUA

Ikasleek elikadura osasuntsu eta burujabe baten irizpideak praktikan jartzea.

ARIKETAREN GARAPENA

- Taldeak egun bateko menu bat sortzen du, tokiko eta sasoiko produktuekin.
- Konparatzen da menu industrial batekin (fabrikatutako eta prozesatutako, kanpotik ekarritako sasoikoak ez diren produktuekin).
- Ondorioak ateratzen dira: osasuna, ekonomia lokala, ingurumen inpaktua.



HAUSNARKETA GALDERAK

- Zer sentitzen duzu bi menuen artean?
- Zergatik da garrantzitsua sasoiko produktuak erabiltzea?

BALIABIDE OSAGARRIAK

Vía campesina y soberanía alimentaria



Porrulandia



Aldaketa klimatikoa eta elikadura sistemak



Asteko hamaiketakoa dinamika



Mendari jasangarria dinamika



Elikadura Erronka saio didaktikoa



EKINTZA POSIBLEAK

Baratze txikia

Eskolan edo komunitatean hazi edo landare batzuk jarri, elikadura zikloa bertatik bizitzeko.

"Km 0" merienda

Ikasleek tokiko produktuekin merienda bat prestatzen dute.

Kontsumo talde baten bisita

Hurbileko kooperatiba edo elkarte batera joatea, funtzionamendua ezagutzeko.

Etxeko ohiturak aldatzea

Ikasleek etxean konpromiso txiki bat hartzen dute (astean behin tokiko produktua erostea, adibidez).



EKONOMIA ZIRKULARRA

Gaur egun nagusi den ekonomia eredua lineala da: ekoitzi, erabili eta bota. Eredua honek baliabide naturalen ustiapen etengabea oinarritzen da eta hondakin kopuru ikaragarriak sortzen ditu, ekosistemen mugei muzin eginez. Horren aurrean, **ekonomia zirkularrak bestelako logika proposatzen du:** baliabideak berrerabili, birziklatu eta berrasmatu, hondakina baliabide bihurtuz. **Zirkulartasuna, zikloen ezaugarria da eta natura beraren isla.**

Ekonomia zirkularrean, produktu baten bizitza osoa kontuan hartzen da: nola diseinatu den, zein materialekin egiten den, nola erabiltzen den eta zer gertatzen den erabilera amaitzean. Helburua ez da soilik hondakinen kudeaketa hobetzea, baizik eta **hasieratik produktuak jasangarriagoak diseinatzea eta erabilera kolektiboagoak bultzatzea** (konpartitu, konpondu, bigarren bizitza eman...).

Honek **ingurumen onurak ditu, baina baita gizarte eta ekonomia mailakoak ere:** lanpostu berriak sortzen dira konponketan eta berrerabileran, komunitateak indartu egiten dira baliabideak partekatzean, eta ekonomia lokalak dinamizatzen dira.

Hezkuntzan ekonomia zirkularra lantzeak aukera ematen du ikasleekin pentsatzeko zer nolako azterna uzten duen gure kontsumo ohitura edota jarduera bakoitzak, eta nola bihur daitezkeen hondakinak sormen eta berrikuntza iturri. Ikuspegi honek ohitura berriak proposatzen ditu: gutxiago kontsumitzea, gehiago berrerabiltzea eta gure ingurunearen baliabideei balio berria ematea.



HELBURUA

Ikasleek ulertzea nola alda daitekeen produktu baten bidea ikuspegi linealetik zirkularrera.

ARIKETA 1

Produktu baten bi bizitzak

20 min.



Bi talde



Objektu errazak (plastiko botila, arropa, papera...).



ARIKETAREN GARAPENA

Taldea banatu bi multzotan: lehenengoak “bizitza lineala” marrazten du:
Ekoizpena → Erabilera → Hondakina

Bigarrenak “bizitza zirkularra” irudikatzen du:

Ekoizpena → Erabilera → Berrerabilpena / Konpostajea / Birziklapena

Talde bakoitzak aurkezten du bere bidea, eta ondoren alderatzen dira bi ereduen abantailak eta mugak.

HAUSNARKETA GALDERAK

- 0 Zer galtzen dugu bide linealean?
- 0 Zer irabazten dugu ikuspegi zirkularrarekin?



ARIKETA 2

Hondakinetik baliabidera



30-40 min.



Talde txikiak



Hondakin garbi batzuk (poteak, kartoia, tapoiak...), tailer egiteko espazioa.



HELBURUA

Parte-hartzaileek ohartzea hondakina ez dela amaiera, aukera berria baizik.

ARIKETAREN GARAPENA

- Talde txikiak osatu eta hondakin bat ematen zaie.
- Erronka: objektu horri "*bizitza berria*" ematea (jolasa, apaingarri, erabilera praktikoa...).
- Talde bakoitzak bere proposamena aurkeztzen du eta azalpen laburra egiten du.



HAUSNARKETA GALDERAK

- Zerk eragin du ideia hau izatea?
- Zer ikasi dugu hondakinak beste modu batean ikustean?

BALIABIDE OSAGARRIAK

¿Qué es la economía circular?

Economía lineal y Economía circular

Ekonomia zirkularra: zergatik da garrantzitsua?



EKINTZA POSIBLEAK

Eskolako berrerabilpen kutxa

Ikasleek hondakin "berrikigarriak" ekartzen dituzte eta horiekin tailerrak egiten dira.

Bigarren eskuko azoka txikia

Ikasleek arropa, jostailu edo liburuak trukatzeko gunea antolatzen dute.

Konpost txokoa

Baratzearen edo patioaren ondoan hondakin organikoak konpost bihurtzeko sistema sinple bat sortu.

Eguneroko erronka

Aste batez ikasle bakoitzak "hondakin berri bat" berrerabiltzeko modu bat aurkitu behar du.





ERESILIENTZIA KOMUNITARIOA

Gaur egun gure gizarteek erronka handiak dituzte: krisi klimatikoa, biodibertsitatearen galera, krisi sozial eta ekonomikoak... Erronka horiek errealak dira eta gure bizitzetan eragin zuzena dute. Baina horiei aurre egiteko gaitasuna ere badugu. Hor sartzen da **erresilientzia: egoera zail edo aldakorretan egokitzeko eta indartsuago ateratzeko komunitate baten ahalmena.**

Erresilientzia ez da soilik “jasatea”; aukera berriak sortzea eta bizitza hobetzeko aukerak ikustea ere bada. Ikastetxeetan ikusten ditugun praktika txiki asko erresilientziaren adibide dira: jolas-material naturala erabiltzea, energia aurrezte, baratze txiki bat martxan jartzea, edo gurasoen eta auzoaren arteko sareak indartzea. Ekintza horiek sinpleak dirudite, baina **krisi garaian bizirauteko eta komunitatea indartzeko oinarriak dira.**

Komunitatea da erresilientziaren oinarria. Norbanakoek ekintza txikiak egin ditzakete, baina **elkarlanean indarra biderkatu egiten da.** Inguruko pertsonekin sare sendoak sortzeak segurtasuna eta laguntza eskaintzen dizkigu, bai egunerokoan, bai egoera zailetan. Auzoan partekatzen ditugun baliabideak, eskolan elkarri ematen diogun sostengua edo herrian sortzen diren ekimen kolektiboak dira erresilientziaren benetako adibideak. Horregatik, ikasleei transmititu nahi diegun balio nagusietako bat da: bakarka urrun joan gaitezke, baina komunitatean batera urrunago eta indartsuago irits gaitezke.

Horregatik, ikasleekin erresilientzia lantzea ez da beldurretik abiatu behar, baizik eta konfiantza eta sormenetik. Gure komunitateetan esperimendatuz eta ohitura jasangarriak txertatuz, krisi garaiei aurre egiteko prest gaude, eta aldi berean etorkizun oparoago bat eraikitzen dugu.



HELBURUA

Erresilientzia eraikitzeko komunitate harremanen garrantzia ikusaraztea.

ARIKETA 1

Komunitate sareak

15-20 min.



Talde osoa



Hari edo artile pilota bat.



ARIKETAREN GARAPENA

- Parte-hartzaileak zirkuluan jartzen dira.
- Lehen partehartzaileak artile-bolaren muturra eutsiz, pilota beste pasatzen dio esanez *"zuregandik ikasten dut..."*, *"zurekin parteka dezaket..."* edo antzeko zerbait.
- Hurrengo partehartzaileak, dinamika jarraitzen du hariari eutsiz eta *"zuregandik ikasten dut..."* formula (edo aukeratutako) jarraituz.
- Azkenean sare bat osatzen da. Dinamizatzaileak azaltzen du sare horrek komunitatearen erresilientzia adierazten duela.

HAUSNARKETA GALDERAK

- Nola laguntzen digu sare honek egoera zailei aurre egiten?
- Zein ekarpen txiki egin dezake bakoitzak komunitate sendoago baterako?



ARIKETA 2

Egokitu eta indartu



20 min.



Talde txikiak



Post-it, paper handia.



HELBURUA

Ikasleek ulertzea erresilientzia ez dela soilik arazoei aurre egitea, baizik eta egoera zailetan aukerak sortzea.

ARIKETAREN GARAPENA

- Dinamizatzailleak egoera zail batzuk proposatzen ditu (adib. argindarrik gabe geratzea, eurite handiak, hornidura falta...).
- Talde bakoitzak proposamen praktiko bat egiten du: *"Zer egin dezakezue egoera horretan talde bezala?"*
- Ondoren, denak jasotzen dira mural batean eta ideia positiboekin bukatzen da.



HAUSNARKETA GALDERAK

- Zein desberdintasun dago bakarka edo taldean aurre egitearen artean?
- Zer ikusten duzu komunitatearen indarretan?

BALIABIDE OSAGARRIAK

Adaptación al Cambio Climático

¿Qué es la resiliencia climática?



EKINTZA POSIBLEAK

Erresilientzia egutegia

Hilero komunitateak ekintza txiki bat antolatzea (adib. elkartrukea, zaintza jardunaldia, informazio tailerra).

Ezusteko simulazioa

Ikastetxe edo talde batean egoera xume bat simulatzea (adib. argirik gabe eguna), irudikatzeko nola konpon genezake elkarlanean.

Zaintza konpromisoak

Ikasle bakoitzak taldeari eskaintzen dion ekarpen txiki bat adostea (adib. norbaitek beti ura ekartzea, beste batek jolasak prestatzea...).

Komunitatearen ekintza errealak

Tokiko erakunde edo auzo-elkarte batekin elkarlanean ekintza txiki bat (adib. baratze komunitarioan laguntza, auzo-garbiketa, zaintza-sare baten aurkezpena).



GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) Nazio Batuen baitan sortu ziren 2015ean, **mundu osoko erronka nagusiei erantzuteko**: pobrezia, klima-aldaketa, desberdintasunak, biodibertsitatearen galera... Helburu hauek **hizkuntza komun bat** bihurtu dira **mundu mailan**: herrialde guztiek ulertzen eta partekatzen duten marko bat. Horri esker, oso testuinguru desberdinetan helburu hauei loturiko erronkei erantzuteko elkarlan, proiektu eta baliabideak sortzen joan dira. Hala ere, Nazio Batuen proposamen honek **hainbat kritika** azaleratu ditu. Helburu hauek betetzeko **konpromisoa ez da loteslea**, hau da, 2030 urterako **helburuak ez betetzeak ez die herrialdeei ondoriorik ekartzen**. Ez dago marko honi loturiko legerik, ez da inon ere zehazten, helburu baten aldeko ekintzak beste helburu baten lorpenaren aurka joan ezin daitekeenik, hau da, lehen ikusitako permakulturaren etiketetan ez bezala, ez dago elkarren arteko oreka zaintzeko neurririk.

Markoa egokitzen jotzen bada ere, ezin dugu ahaztu Garapen Jasangarrirako Helburuak ez direla hutsetik sortu. Askotan, **jakinduria tradizionaletan, komunitate indigenetan, herri mugimenduetan eta tokiko esperientzietan aspalditik existitzen diren ideiak sistematizatu besterik ez dute egin**. Bizitza zaintzea, komunitatearen indarra, baliabideen bidezko banaketa edo naturarekiko errespetua gure kulturen parte izan dira mendeetan zehar. GJHak, neurri handi batean, jakinduria horiek hizkuntza global batean berridaztea dira.

Horregatik, gida honetan GJHak ez ditugu aurkeztuko helburu tekniko gisa, baizik eta iruditeria partekatu baten elementu gisa. Hori baliagarria da mundu mailan erronkak kokatzeko, baina guretzat benetako garrantzia hartzen dute tokiko praktiketara ekartzen ditugunean. Finean, gure auzo, ikastetxe edo komunitate txikietan egiten duguna da benetan helburu horiek errealitate bihurtzen dituenak.



HELBURUA

GJHak ez direla "atzerriko" helburuak, baizik eta gure bizitzetan aspaldidanik existitzen diren ideiak modu komun batean adierazteko tresna ulertzea.

ARIKETA 1

GJHak gure errealitatean

20 min.



Talde txikiak



GJHen ikonoak (inprimatuta) + tokiko jakinduriaren esaera edo adibideak (auzolana, zaintza, natura errespetatzea...).



ARIKETAREN GARAPENA

- Parte-hartzaileei GJHen irudiak erakusten zaizkie.
- Taldeka, ikono bakoitzari tokiko adibide edo esaera bat lotzeko eskatzen zaie. Irakasleak adibide batzuek eman ditzazke lagungarri moduan.
- Guztiak partekatzen dira mural batean: "GJHak gure errealitatean".

HAUSNARKETA GALDERAK

- Zertan laguntzen digu hizkuntza komun honek?
- Zergatik da garrantzitsua gure tradizioekin lotzea?



ARIKETA 2

Nire GJH pertsonala



30 min.



Talde osoa



GJHen ikonoak eta txartel txikiak.



HELBURUA

Ikasle edo parte-hartzaile bakoitzak identifikatzea zein GJH dagoen bere bizitzan gertuago.

ARIKETAREN GARAPENA

- Ikasle bakoitzak GJH bat aukeratzen du eta esaten du zergatik sentitzen duen gertu (adib. ura aurrezten duelako, janariarekin arduratsua delako, auzoan laguntzen duelako...).
- Guztiak partekatzen dira zirkuluan.
- Talde txikietan, ariketa berdina errepikatzen dute, baino oraingoan, ikastetxean zentratuta. (Fokoa beste edozein talde/komunitatean jarritz egin daiteke: herria, hiria, familia,...)
- Ondoren, taldean hausnarketa: *"Nola konektatzen dira gure aukerak komunitatearekin?"*



HAUSNARKETA GALDERAK

- Zer GJH ikusten duzu zure eguneroko bizitzan?
- Zein urrats txiki gehi ditzakegu kolektiboan?

BALIABIDE OSAGARRIAK

Garapen Iraunkorrerako Helburuak

Garapen Jasangarrirako Helbururak. Bigarren Hezkuntzako Gida Didaktikoa

GJH-en ikonoak eta informazioa



EKINTZA POSIBLEAK

GJH mural kolektiboa

Ikasleek marrazten dute nola ikusten duten beren herria edo eskola GJHen arabera.

"Auzoko GJHak" paseo gidatua

Herrian ibili eta identifikatzea zein GJH ari diren betetzen tokiko proiektuetan.

GJH konpromiso txikiak

Taldeak hautatzen du 2-3 helburu hurrengo hilabeteetan lantzeko (adib. hondakinen murrizketa, genero berdintasunaren aldeko ekintza, hiri jasangarriago baten ekarpen txiki bat).

Jolas kooperatiboa

Talde bakoitzak GJH baten puzzlea edo karta-sorta osatzen du, gero guztiak elkartu eta "mundu osoko puzzlea" osatzen da.





KONTSUMO JASANGARRIA

Kontsumo jasangarria gure eguneroko erabakietan hasten da: zer erosten dugun, nondik datorren, nola ekoitzi den eta zer gertatzen den erabiltzen dugunean edo botatzen dugunean. Askotan ez gara konturatzen erosketa arrunt batek kate oso baten parte dela: lurra lantzen duen pertsonatik hasi eta gure hondakinak jasotzen dituen sistemaraino.

Ohiko kontsumo ereduak inpaktu handia dute: baliabideen gehiegizko ustiapena, hondakin metaketa, lan-prekarietatea edo distantzia luzeetako garraioaren aztarna ekologikoa. Horregatik, kontsumo jasangarriak ez du esan nahi “gutxiago kontsumitzea” soilik, baizik eta **beste logika batetik kontsumitzea: bidezkoa, arduratsua eta ingurunearekin bateragarria.**

Kontsumo jasangarriak **hiru une giltzarri** ditu: **jatorria, erabilera eta ondorioa.** Jatorria kontuan hartzeak esan nahi du ekoizpen baldintzei eta ingurumen inpaktuari erreparatzea; erabilerak, baliabideei ematen diegun ardurazko tratamendua; eta ondorioak, gure hautuek gizartean eta ingurunean duten eragina baloratzea.

Ikasleekin kontsumo jasangarria lantzeak aukera ematen du hausnartzeko gure ohiturek zein ondorio dituzten eta, aldi berean, alternatibak ezagutzeko: tokiko produktuak aukeratzea, berrerabilpena lehenestea, bidezko merkataritzari bultzada ematea, zerbitzu eta baliabide berriztagarri eta jasangarriak hornitzen dituzten proiektuak: komunitate energetikoak, banatzaileak... (etika arduratsuan oinarritzen diren proposamenak). Azken finean, gure erabakiek etorkizun jasangarriago baterantz egiteko ahalmena dute.



HELBURUA

Kontsumo arduratsua ulertzea hiru une nagusitan: aurretik (beharra), erabileran (arduraz erabiltzea) eta ondoren (zer gertatzen da produktua bukatzen denean).

ARIKETA 1

Hiru momentu kontsumoan

20 min.



Talde txikiak



Objektu arruntak (botila, kamiseta, telefono mugikorra...).



ARIKETAREN GARAPENA

Talde bakoitzak objektu bat jasotzen du.

Aztertzen dute:

- (a) Beharrezkoa al zen?
- (b) Nola erabiltzen da arduraz?
- (c) Zer gertatzen da amaitzen denean?

Guztiak partekatzen dira, eta alternatiba zirkularrak proposatzen dira.

HAUSNARKETA GALDERAK

- 0 Zer unean erabakitzen da inpaktu nagusia?
- 0 Nola sor ditzakegu "bizitza luzeagoak" gure objektuentzat?



ARIKETA 2

Erosketa eta erresilientziaren ariketa



25-30 min.



Bi talde



Bi "erosketa zerrenda" prestatu (batean supermerkatu handi bateko produktuak, bestean tokiko/hurbileko alternatibak).



HELBURUA

Parte-hartzaileek ulertzea erosketa-ohiturek erresilientzia pertsonal eta komunitarioan duten eragina.

ARIKETAREN GARAPENA

- Taldea bi multzotan banatu: talde batek "erosketa industrial" aztertzen du, besteak "erosketa tokikoa".
- Galdera gidariak:
 - "Zein da ingurumen inpaktua?"
 - "Zein da komunitatearentzat onuragarria?"
 - "Zein da prezio erreala (ezkutuko kostuak)?"
- Azkenik, taldeek beren aurkikuntzak aurkezten dituzte eta eztabaida irekitzen da:
 - "Zein da jasangarriagoa?"
 - "Nola laguntzen du gure komunitatea erresilienteagoa izaten?"



HAUSNARKETA GALDERAK

- 0 Nola eragiten du nire erosketa-ohiturak ingurunean eta komunitatean?
- 0 Zer aukera txiki egin ditzaket bihartik aurrera?

BALIABIDE OSAGARRIAK

Ekoizpen eta kontsumo arduratsua

Ikastetxeetan erosketa arduratsua bultzatzeko hiru gako

Erosketa arduratsua enpresa txiki eta ertainetan gida



EKINTZA POSIBLEAK

Eskolako / Komunitateko "erosketa protokoloa"
Ikasleekin irizpide batzuk adostu (tokikoa, bidezkoa,
birziklagarria...).

Bigarren eskuko txoko bat
Ikastetxean edo komunitatean gauza txikien elkartrukea.

Aste bateko erronka
Familia edo ikasleek astebetez "kontsumo jasangarriaren
ohitura bat" probatu eta gero partekatu (adib. plastikorik gabe
erosketak, tokiko barazki gehiago...).

Komunitate saski burujabea
Tokiko produktuekin merienda edo otordu txiki bat antolatzea.





GREENWASHING

Gero eta ohikoagoa bihurtu da enpresa eta erakunde askok **“jasangarritasunaren” izenean “mezu berdeak” erabiltzea**, ingurumenari eragiten dioten kaltea gutxitu eta gainera naturaren alde egiten dutela adierazteko. Fenomeno horri greenwashing deitzen zaio: irudi berdea saltzea, baina benetako inpaktu positiborik sortu gabe. Publizitate kanpaina bortitzen bidez, kapitalismoak behin eta berriz naturaren kolorea eta “jasangarritasuna” gauza bera direla pentsatzera bideratu gaitu: berdea.

Greenwashing-ak **bi arrisku** nagusi ditu: batetik, **herritarrak nahastea**, uste faltsua sortuz gure erosketa edo ekintza batzuk “jasangarriak” direla; eta bestetik, **benetako alternatibak ikusezin bihurtzea**, merkatuaren marketin zaratak estalita. Horrek konfiantza galtzea eta frustrazioa eragin ditzake, batez ere gazteen artean.

Horregatik, garrantzitsua da kontzientzia kritikoa lantzea: jasangarritasunaren izenean egiten dena aztertzea eta bereiztea zein den publizitate hutsa eta zein den ekintza erreal eta eraldatzailea. Hori ez da zaila: galdera egokiak egitea besterik ez da behar. Adibidez: produktua benetan bidezko baldintzetan ekoiztu al da? Enpresak bere jarduera nagusia aldatzen ari da, edo kanpaina batean soilik ari da kolore berdea erabiltzen?

Ikasleekin greenwashing gai hau lantzeak tresna baliotsua eskaintzen du: ez bakarrik kritika egiteko, baizik eta alternatibak bilatzeko. Publizitatean irakurtzen eta ikusten dutenaren aurrean, galderak egiten eta euren iritzia era kritikoan osatzen ikasteko aukera da. Azken batean, greenwashing ezagutzea urrats garrantzitsua da benetako jasangarritasun praktikak identifikatzeko eta bultzatzeko.



HELBURUA

Publizitate "berde" baten atzean dagoen errealitatea aztertzea.

ARIKETA 1

Egia iragarkiaren atzean

20 min.



Talde osoa



Iragarki inprimatuak edo bideo laburrak (adib. botila "eko", auto hibrido, plastiko biodegradagarri faltsuak...).



ARIKETAREN GARAPENA

- Parte-hartzaileek iragarki bat ikusten dute.

- Galdera gidariak egiten dira:

 - "Zein mezua ematen du?"

 - "Zein irudi erabiltzen du?"

 - "Zein informazio ezkututzen du?"

- Taldeak "benetako iragarkia" sortzen du (esaldi, marrazki edo sketch txiki baten bidez).

HAUSNARKETA GALDERAK

0 Zerk egiten du publizitate hau erakargarri?

0 Nola konta genezake egia modu bidezkoagoan?



ARIKETA 2

Greenwashing detektibeak



25 min.



Talde txikiak



Produktu errealean ontziak edo web iragarkiak.



HELBURUA

Greenwashing identifikatzeko gaitasuna lantzea.

ARIKETAREN GARAPENA

- Talde bakoitzari produktu bat ematen zaio (adib. "eko" etiketa duen ura plastiko botilan, "natural" txokolatea palma olioarekin, argi-indar "garbia" saltzen duen web-orrialdea...).
- Taldeak "detektibe txosten" txiki bat egiten du:
"Zein elementu dira benetakoak eta zein iradokizun faltsuak?"
- Guztiak aurkezten dira eta irizpide bateratuak sortzen dira greenwashing detektatzeko.



HAUSNARKETA GALDERAK

- Zer irizpide erabil ditzakegu produktu baten egiazkotasuna baloratzeko?
- Zergatik da hain garrantzitsua kontsumitzaile kritikoak izatea?

BALIABIDE OSAGARRIAK

"Greenwashing": qué es y cómo afecta al medio ambiente



"La ley que prohíbe el 'greenwashing' es totalmente necesaria"



¿Qué es la sostenibilidad?



EKINTZA POSIBLEAK

"Benetako etiketa" diseinua

Ikasleek produktu baten etiketa berria sortzen dute, gardentasun eta informazio osoarekin.

Publizitate tailer kritikoa

Taldeak 3-4 produktu "eko" aztertzen ditu eta alternatiba komunikatiboak sortzen ditu.

Sare sozialetako kanpaina txikia

Ikasleek mezu laburrak prestatzen dituzte (meme, bideo edo esaldi), greenwashing-ari aurre egiteko eta kontzientzia sortzeko.

Erosketa esperimentala

Ikasleek aste batez etxeko erosketetan etiketa eta publizitateko mezuak aztertzen dituzte eta ondorioak partekatzen dituzte.

ONDORIOAK

Gida hau BDSKoop-ko, Labore Txingudi, Ara!Gorputz eta Maïa Permaculture-ren arteko lankidetzaren emaitza da. Erakunde bakoitzak bere esperientzia eta ikuspegia ekarri ditu:

- **Labore Txingudi:** tokiko kontsumo eta ekoizpen arduratsua sustatzen duen elkarte da. Agroekologian eta elikadura burujabetzan oinarrituta, bazkideen eta ekoizleen arteko harreman zuzen eta bidezkoa indartzen du.
- **Ara!Gorputz:** gorputzaren pedagogiatik eta feminismo interseksionaletik lan egiten duen kolektiboa da. Ekofeminismoa eta zaintzen logika hezkuntzara eta komunitatera eramaten dituzte, balio eraldatzaileekin.
- **Maïa Permaculture:** permakultura eta pedagogia eraldatzailea uztartzen dituen kooperatiba da. Lurra zaindu, pertsonak zaindu eta bidezko banaketa etiketatik abiatuta, hezkuntza prozesuak eta komunitate proiektuak diseinatzeko dituzte.

Era berean, gida hau EAEko Agenda 2030 Bonoen dirulaguntzari esker egin ahal izan da, jasangarritasuna eta Garapen Jasangarrirako Helburuak gure komunitatean modu hurbilean lantzeko bide berriak sortuz.

Hiru ideia nagusi azpimarratu nahi ditugu:

- **Ikuspegi integratua:** jasangarritasuna ez da ingurumenari buruz soilik, gizartea eta ekonomia ere tartean daude, eta horiek guztiak permakulturaren etikekin lotzen dira.
- **Ohitura txikiek eragin handia dute:** pauso txiki eta kontzienteek komunitate oso baten eraldaketa bultzatu dezakete.
- **Kritika eraikitzailea ezinbestekoa da:** gaur egungo sistemaren mugak ulertzea beharrezkoa da, baina horretatik alternatiba berriak sortzeko gaitasuna eraikitzea da helburua.

Amaitzeko, gonbite bat egin nahi dugu: gida hau erabiltzean, galdetu zure buruari eta zure taldeari ***Zein ekintza txiki jar dezakegu martxan bihartik aurrera gure ikastetxean edo komunitatean?***

Erantzun horiek, txikiak izan arren, gure jasangarritasunaren eta erresilientziaren bidean urrats errealak izango dira.



GUTAZ GEHIAGO
JAKIN NAHI BADUZU:





ERALDAKETA KOMUNITATEAN HASTEN DA.

*Proiektu hau BDSKoopeko, Labore Txingudi, Ara!Gorputz eta
Maia Permaculture-ren arteko elkarlanaren emaitza da.
Eusko Jaurlaritzako Agenda 2030 Bonoak programaren
laguntzarekin gauzatu dugu.*